



Abandoko San Bizente eliza (Bilbao)

Abandoko elizate aberatsak erdi aroko tenplu bat izan bide zuen, eta tenplu hori, bertako eliztarrek hilobiratzeko adinakoa ez izanik, gaurko eraikin monumentalak bilakatu zen, eraikineko lanetan hasi zirela XVI. mendearen erdi aldera.

Bilbok elizate hori irentsi zuenean, errenazimentuko eliz arkitekturaren benetako bitxi bat hartu zuen: San Bizente Martiria, Euskal Herriko zutabedun elizaren adibiderik behinenetakoa. Arestian zaharberriua dela, ondarezko elementu garrantzitsua dugu gaur egun.

Eraikina

Harlanduez eta hormarriez batez ere eraikia dela, tenpluak hartzen digu elizate zaharreko ingurunerik nobleena, gaur egun Albiako lorategiak gogorarazten digun zuhaitzi leku baten buru dela.

Eraikinaren egiturak, noble eta handi, bost tarteko hiru nabe ditu, guztiak altuera berekoak, sekzio biribileko eta kapitel doriko klasikodun zutabe altuez definitzen direnak. Kapitel horien gainean ezartzen dira estaldura, gangaren arku sortzaileak eta nerbioturak. Ganga osoa uniforme da eta era gotikokoa, hau da, lau puntakoa eta nerbioak jorituta daudela poloen aldean, lau giltzarri direla guztira.

Zutabedun elizen generoaren barruan -zabalera irekia, bereizketarik gabe, altuera bereko eta zutabe klasikoetan ezarritako gangak bereizgarri direla-, San Bizente eliza dugu oso eredu puru bat, ez baitago kapera nagusirako ere espazio autonomorik. Lehenengo tarteko bereizketak XVII. mendekoak dira, eta Ebanjeliokoa berriagoa.

Argien sistema askieza da, hain dira txikiak hego eta ipar aldeetara binaka irekitzen diren erdi-puntuko leiho molduratsuak. Alde horietatik eransten zaizkio elizari, buru-horma ondoan, parrokiaren eraikin modernoagoak.

Bi sarrera dira. Itxura zaharrena agertzen duena gotiko berantiarreko tipologiakoa da, janba eta arkibolta molduratsu eta zorrotzak dituela, eta hegoaldera begira dago, tenplu inguruko parrokiaren eraikinek errespetatzen duten pasabide batera begira. Bestea oinaldean kokaturik dago eta fatxadaren parte da. Kanpandorre modernoaren euskarri diren bi matxoiaren arteko horma-konka handi batek hartzen du arku beheeratu erako sargune xume bat, fantasiazko elementu figuratu batzuek ozta-ozta dekoratua. Gainean darama artekadura bat San Bizente Martiriaren harrizko irudi baterako, eta bere ardatzaren gainean diseinatzen da dinteldun leiho bat.

Adierazia dugunez, XVI. mendearen erdi aldea baino lehentxeago hasi ziren tenpluaren lanak, jakinekoa dela ataundiaren noizko zehatza, Juan de la Peña maisu harginaren koadrilak egin baitzuen 1556an.


Baina lanak geldo edo zihoazen, eta 1619an, zutabeak eta ganga batzuk eraikitzen ari zirela, 13.500 dukat jotzen zuen artean egiteko geratzen ziren lanen aurrekontuak. Martín Ibañez de Zalbideak lan egiten zuen tenpluari teitlatua ematen 1650ean. Orduan izan zen, XVII. mendearen erdi aldera, Basurto de Acha eta Aparicio de Uribetarrek beren kapera pribatuak burualdeari erantsita altxatzeko eskubideak erosi zituztenez. Kanpandorra 1894koa da eta José María Basterrak egin zuen diseinua.

Altzariak

Abandoko San Bizente elizak bost erretaula ditu, zur urreztatukoak; handiena estilo neoklasiko-isabelinokoa, Juan Blas de Hormaeche arkitektoak diseinatu zuen 1860an; gainerakoak, modu simetrikoan kokatuta, XX. mendekoak dira.

Kalitatezko eskulturak daude guztietan, esaterako, San Alfontso Maria Ligorio eta San Gerardo, Higinio Basterraren obra direnak, edo San Jose irudia, burualdeko eskuinaldean jarria. Kristoren irudi bikaina ere bada, Julio Beobide eskultoreak egin (1926), ezker aldeko kaperan dagoena, eta pintura barroko oso duinak sakristian.

Testua: J. R. Valverde.



Abandoko San Bizente eliza

Bilbao. (San Bizente kalea. Bilboko Zabalgunean, Albiako lorategi ondoan. Tf: 944 231 296).

Bisiten ordutegia:

Astegunetan:
10:30 - 13:00 eta 17:30 - 19:30
Zapatu eta domeketan:
10:30 - 13:30 eta 17:30 - 19:00

(Kultua ematen ari den bitartean ezin izango dira elizak bisitatu).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- Calatravaren zubitxoa.
- Espainiako bankua. (Kale nagusia, 10).
- Foru Aldundiaren Eraikina. (Kale nagusia, 25).
- "La Equitativa" Etxea. (Mazarredo zumarkalea, 7).